

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, VI-10.177 esparruko, "Zaldua" izeneko, ehiza aprobetxamenduarena

Ozetako eta Elgeko administrazio batzarrek, ohiko bilkuran, kontratazio espedientea onartu zuen VI-10.177 ehiza esparruko, "Zaldua" izeneko, aprobetxamendu zinegetikoa esleitzeko, lehiaketa publikoz.

Lehiaketa

1. Erakunde esleitzailleak: Ozeta eta Elgeko administrazio batzarrak.
2. Kontratuaren xedea: VI-10.177 ehiza esparruko, "Zaldua" izeneko, aprobetxamendu zinegetikoa.
3. Izapidetzea eta prozedura. Izapidetzea: urgentea; prozedura; irekia; esleitzeko era: lehiaketa.
4. Esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak:
 - Bertako ehiztarien ordezkari eta parte hartzea ehiza esparruaren kudeaketan eta gozamenean: gehienez, 5 puntu.
 - Erantzukizun zibileko aseguruaren bermeak: gehienez, 3 puntu.
 - Eskaintza ekonomikoa: gehienez, puntu 1.
5. Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea: Barrundiako udaletxea (Boilar kalea, 12; Ozeta), iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo zortzi egunen barruan.
6. Errentamendu aldia: hamar (10) urte.

VI-10.177 ehiza esparruko, "Zaldua" izeneko, aprobetxamendu zinegetikoa esleitu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiko sail eskudunak onartu egin beharko du hura berritzeko espedientea.

Ozeta, 2016ko azaroaren 17a

Lehendakaria

JAVIER UGARTE BARRENA